

a. Entzumena

- a.1. Gai izatea entzundako mezu errazak ulertzeko, norbaitek oso astiro hitz egiten duenean, etenaldi luzeak eginez eta kontu handiz ahoskatuz.
- a.2. Gai izango da helbide errazak ulertzeko: nola iritsi X puntutik Y puntura, oinez edo garraio publikoaren bidez.
- a.3. Gai izatea ulertzeko astiro eta kontu handiz egindako galderak (nongoa den, norekin bizi...) eta argibideak, eta instrukzio labur eta errazak (jarri zutik!, etorri hona!).
- a.4. Gai izatea zenbakiak, prezioak eta orduak ulertzeko.

b. Irakurmena

- b.1. Gai izatea iragarki edo posterretan azaltzen den emanaldia edo filma aukeratzeko, baita non den eta zer ordutan hasiko den ulertzeko.
- b.2. Gai izatea galdera-sorta bat ulertzeko (izena emateko, hotelean izena emateko) eta bere buruaz informazio nagusia emateko (izena, abizena, jaioteguna, herritartasuna).
- b.3. Gai izatea egunero kalean aurkitzen ditugun ikurretan dauden hitzak eta esaldiak (adibidez, "geltokia", "aparkalekua", "ez aparkatu", "ez erre") ulertzeko.
- b.4. Gai izatea postaletako mezu labur eta errazak ulertzeko; oporretako agurrak, adibidez.
- b.5. Gai izatea eguneroko egoeretan, lagunek edo lankideek idatzitako mezu errazak ulertzeko; "lauretarako itzuliko naiz", adibidez.

c. Elkarreragina

- c.1. Gai izatea norbait aurkezteko eta oinarrizko agurrak erabiltzeko ("kaixo", "agur", "bihar arte"...).
- c.2. Gai izatea galdera errazak egiteko eta erantzuteko; baieztapenak egiteko eta erantzuteko gai arrunt eta ezagunetan.
- c.3. Gai izatea modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe dago, honek prest egon behar baitu esandakoa astiro errepikatzeko, birformulatzeko edo nahi duena esaten laguntzeko.
- c.4. Erosketa errazak egin ditzake keinuz lagunduta edo eskuaz seinalatuta.
- c.5. Gai izatea zenbakiak, zenbatekoak, salneurriak eta orduak erabiltzeko.
- c.6. Gai izatea jendeari gauzak eskatu eta emateko.
- c.7. Gai izatea jendeari galdera sinpleak egiteko (non bizi diren, ezagutzen duten jendea, dauzkaten gauzak etab.); eta galdera hauek poliki eta argi eginez gero, gai izatea erantzuteko.
- c.8. Gai izatea denbora adierazteko, "hurrengo astean", "joan den ostiralean", "azaroan" "hiruretan" bezalako esamoldeekin.

d. Ahozko adierazpena

- d.1. Gai izatea bere gauza pertsonalekoen berri emateko: helbidea, telefono-zenbakia, herritartasuna, adina, familia, eta zaletasunak.
- d.2. Gai izatea non bizi den deskribatzeko.

e. Idazmena

- e.1. Gai izatea berari buruzko galdera-sortak betetzeko (lanpostua, adina, helbidea, zaletasunak).
- e.2. Gai izatea zorion-txartelak idazteko (urtebetetze-txartela, esaterako).
- e.3. Gai izatea postal sinpleak idazteko (oporretako agurrekin, adibidez).
- e.4. Gai izatea norbaiti oharra idazteko, non dagoen edo non elkartuko garen esanez.
- e.5. Gai izatea berari buruzko perpausak eta esaldi errazak idazteko: non bizi den eta zer egiten duen, adibidez.

f. Estrategiak

- f.1. Gai izatea ulertzen ez duena esateko.
- f.2. Gai izatea, oso modu sinplean, norbaiti esan duena errepika dezan eskatzeko.